

**EUSKADIKO EKONOMIA ETA GIZARTE ARAZOETARAKO BATZORDEAREN ITZULPEN
ZERBITZUAREN KONTRATUA ESLEITZEKO EBAZPENA**

AURREKARIAK

I.- Dokumentu honen izenburuak aipatzen duen kontratua esleitzeko kontratazio-espeditentea publizitaterik gabeko prozedura negoziatuaren arabera izapidetu da, sektore publikoaren kontratuen arloan indarreko araudiari jarraiki.

II.- EGABeko batzordeburuak ordezkatuta, kontratazio-organoak proposamen guztiak aztertu ditu, administrazio-baldintzen eta preskripzio teknikoen agiriko balorazio irizpideen arabera; hala, Hori-Hori, S.A. enpresak aurkeztutako eskaintza izan da irabazlea.


EBAZPENA

Aurreko guztia ikusita, EGABeko batzordeburuak honako hau onetsi du:

1.- Hori-Hori, S.A. enpresari esleituko zaio itzulpen zerbitzuaren kontratua, BERROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIEHUN ETA ZORTZI EUROtan (54.808€), BEZik gabe.

2.- Esleipena Euskadiko EGABen Kontratatzailearen Profilean argitara dadin xedatzea eta ebazpena prozedura honetan parte hartu duten hiru eskaintzaileei jakinaraztea.

Bilbo, 2015eko abenduaren 22a.



Francisco José Huidobro

Euskadiko EGABeko presidentea